

**BERMEON ANTOLATZEN DIREN KIROL JARDUERA BEREZIAK
FINANTZATZEKO 2019. URTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN
OINARRI ESPEZIFIKOAK**

ESPARRUA: KIROLA

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA- ERAKUNDEA:	Kirol Patronatua
INSTRUKTOREA:	Itxaro Zabala (Kirol Patronatuko zuzendaria)
BALORAZIO BATZORDEA	Kirol Patronatuko diru-laguntzen balorazio Batzordea eta Kirol Patronatuko zuzendaria
DIRULAGUNTZA EBATZIKO DUEN ORGANOA:	Kirol Patronatuko batza artezkaria
DIRU- LAGUNTZA ARLOA:	Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa
KODEA:	2019/04-02
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO KOPURUA:	19.000 €. PARTIDA 00000-34100-4810102
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIREN HELBURU ETA ONDORIOAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Herri osorako jarduera arruntetik haratago antolatzen diren jolas izaerako kirol jarduera berezien eta/edo noizean behingo jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edota gehigarria eskatzen dutenak. • Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu. • Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.
EPEAK:	<ul style="list-style-type: none"> • Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da. • Eskariak aurkezteko epea, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita HILABETEKO epean luzatuko da. • Justifikazioak: kirol jarduera egiten denetik eta hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epea.
BALORAZIO IRIZPIDEAK:	<p>1.- Kirol ekintzaren aurkezpena.</p> <p>Ekintzaren antolatzaileek, UKPren aurrera eraman nahi duten proiektuaren txostena aurkeztu behar dute. UKPk txosten honen balorazioa egingo dau: txostenaren irudia eta mamia (kirol ekintzaren azalpena, aurrekontua, norentzat den, etab.)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aurkezpen eskasa (azalpenik gabe, bakarrik aurrekontua): 0 puntu. • Ertaina: 5 puntu. • Oso ona: 10 puntu.



2.- Kirol ekintzaren iraupena.

- Egun baten egingo dena (goizez edo arratsaldez, ordu batzuk): **5 puntu.**
- 2 egunetan (adib: zapatu eta domeka) egingo dena edota 2 saio egun berean (adib: zapatu goiz eta arratsaldez): **10 puntu**
- Hilabete bat iraungo duen ekintza (4 egun, 4 asteburu): **15 puntu**
- Ikasturte baten egingo den ekintza: **25 puntu.**

3.- Ikusleen partetik duen arrakasta.

Kirol ekintza honek aurreko edizioan izan duen arrakasta jendearen aldetik, hau da, herriko edota kanpoko jendea ekintza ikustera hurbildu den.

- Oso jende gutxi joaten da ikusten: **2 puntu.**
- Jende kopuru dezente joaten da: **5 puntu.**
- Sekulako arrakasta dauka, jende asko hurbiltzen da: **10 puntu.**

4.- Parte-hartzeari dagokionez, honako hau baloratuko dugu:

a) Partaide kopurua.

- Kirolari gutxi parte hartzen dute: **2 puntu.**
- Kirolari dezentek parte hartzen dute: **10 puntu.**
- Urterik urtera kirolari gehiagok parte hartzen dute: **15 puntu.**

b) Kirol ekintza norentzat den:

- Ekintza itxia: Kirol konkretu hori bakarrik praktikatzen duten jendearentzat: **5 puntu.**
- Ekintza irekia: Popularra, edozeinek parte hartu dezakeena (ume, gazte, nagusi, ...): **20 puntu.**

5.- Kirol ekintzaren izaera: Kirol ekintzaren helburua edo izaera zein den. Lehiaketa, popularra, hezitzailea, hezigarria, erakustaldia, ...

- **Erakustaldia: 2 puntu**
- **Lehiaketa hutsa, txapelketa: 4 puntu.**
- **Hezitzailea.** Umei zuzendutako ekintza **15 puntu**
- **Hezigarria:** Ikastaroak **15 puntu**
- **Popularra, soziala, ez-lehiakorra: 20 puntu.**
- **Lehiaketa eta popularra: 30 puntu.**

* Hezitzailea eta hezigarriaren arteko ezberdintasuna. Adib: HEZITZAILEA: Teniseko ikastaroa inoiz tenisik egin ez duten umeentzat, hasierako maila. HEZIGARRIA: Teniseko ikastaroa jadanik



	<p>tenisa ezagutzen duten ume eta gazteentzat.</p> <p>6.- Aurkezten duten aurrekontua. Antolatzaileek kirol ekintza aurrera eramateko ekonomikoki egin duten lanaren balorazioa. Enpresa edota komertzioetara jo duten diru laguntza bila, aurrekontuaren azalpen zehatza, ...</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Diru sarrerak eta gastuak argi azalduta daude: <ul style="list-style-type: none"> • Bai: 10 puntu • Hala-hola: 5 puntu • Ez: 0 puntu. ▪ Finantziazio maila. UKPtik aparte beste diru sarrerarik lortzeaz arduratu dira (sponsorrak, enpresa pribatuak, ...). <ul style="list-style-type: none"> • UKPren esku diru sarrera guztiak: 0 puntu. • Diru sarreraren %1etik %30ra euren kontura: 2 puntu • %30etik %50era: 10 puntu. • %50tik gora: 20 puntu. <p>* Inskripzioak kanpo geratzen dira, ez ditugu kontuan hartzen.</p> <p>OHARRAK: Ez dira hartuko kontuan esku dirutan emandako sariak eta diru sarreraren barruan, inskripzioen dirua.</p> <p>7.- Diziplina horretan aurkeztutako proiektuen kopurua.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu bakarra: 15 puntu. • 2 eta 3 artean: 10 puntu • Lautik gora: 5 puntu
<p>ESKATZAILEAK:</p>	<p>ESPEZIFIKAZIOAK: Pertsona fisikoak eta jarduera ekonomikoa garatzen edota garatzen ez duten pertsona juridikoak</p>
<p>DIRUZ LAGUNDUKO DIRAN KONTZEPTUAK:</p>	<p>Arlo honetan diru-laguntzak jaso ditzaketen kontzeptuak dira: formazioa, baliabide materialen alokairua eta asistentzia sanitarioa, giza baliabideak, aholkularitza bulegoak, ekimenerako aseguru berezia, federazioaren kuotak, beharrezkoak diren kudeaketa gastuak, garraioak ohiko kirol jarduerekin zerikusirik EZ duenak, eta ohiko jarduerenak EZ DIREN gastuak, hau da, ohiko aurrekontuan EZ dauden gastuak. Oro har, jarduera berezi moduan identifikatuta daudenak.</p> <p>Ez dira finantzatuko ondorengo gastuak: Luxuzko gastuak (primak, opariak,), kirolariei ordainketak, protokoloarekin lotutako ostalaritza eta egonaldi gastuak, banku- interesak, administrazio-zigorak, merkatuko balioa baino altuagoa diren gastuak...</p>



PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

a) Udal dirulaguntza eskatzeko inprimaki normalizatua behar bezala beteta (**1.1 eta 1.2 eranskinak**)

Akatsak zuzentzeko epea

Diru-laguntza eskarian ez badira eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura

Diru-laguntza emateko prozedura: **Konkurrentzia lehiakorra.**

- Diru-laguntza lortutako puntuaketa eta proiektuaren aurrekontuaren arabera izango da.
- Aurrekontuko dotazio osoa ez da egongo zetan banatu. Aurkeztutako proposamenek gutxienez, 80 puntu lortu beharko dituzte diru-laguntzaren bat jasotzeko.
- Gehienez honako kopuru hauek jaso ahal izango dira proiektu bakoitzeko:
 - 2000 € artekoek gehienez 1.000€
 - 2.001 € - 8.000 € artekoek gehienez 4.000€
 - 8.001 € tik gorakoek gehienez 6.000 €

Dirulaguntza hau bateragarria da beste dirulaguntza batzuekin.

Diru-laguntzak ordaintzea

Kirol Patronatuak ordainduko du diru-laguntzaren %100a programa osoa egin eta gero, eta dagokion justifikazioa jaso ostean. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, balantzean (kitapenean) agertzen den aurrekontuaren %100a fakturekin justifikatu behar da.

Desadostasunik balego, Kirol Patronatuko Diru-laguntza balorazio batzordeak aztertuko luke

Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak

1. Bermeon, paneletan ezin dira 40 kartel baino gehiago jarri. Hormetan ere ezin izango da kartelik jarri.
2. Jasotzaileak bere ohiko kirol jarduera zabaltzeko egiten duen publizitatean (iragarkiak, ekipajeak, kartelak, webgunea,...) Bermeoko Kirol Patronatuaren logoa agertu beharko da.
3. Ezingo dira zorrik izan Bermeoko Udalarekin zein Kirol Patronatuarekin.

Diru-laguntzaren justifikazioa



	<p>1. Diru-laguntzearen onuradunak proiektuaren justifikazioa udal eranskinen arabera egin beharko du (2.1 , 2.2 eta 2.3 eranskinak), egoitza elektronikoan, Berhaz bulegoan edo Kirol Patronatuan. Horretarako 15 eguneko epea izango dute kirol jarduera gauzatu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.</p> <p>2. Ebaluazio-memoria, eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako ekintzen garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa jasota.</p> <p>3. Erabilitako publizitatea aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.</p> <p>Akatsak zuzentzeko epea Justifikazioan ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak 10 egun edukiko ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontaktzen hasita.</p>
AURREIKUSITAKO KOSTUAK HONETAN	PROGRAMA 19.000 €
SEGIMENDUA EBALUAKETA BEHARREZKO ADIERAZLEAK:	ETA EGITEKO
	<ul style="list-style-type: none"> - Urtean 10 kirol jarduera baino gehiago egitea programa honen babesean. - % 80an baino gehiagokoetan partaidetza mistoa izatea ala emakumezkoena. - Urtero gutxienez kirol jarduera berri bat gehiago egotea.
ERLAZIONATUTAKO AGIRIAK:	
GENERO ERAGINA	BAT ERE EZ
1/1982 LOaren arabera argitagarria ez den emakida BAI/EZ	<p>Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa.</p> <p>EZ</p>

